

# KOSTALDEKO IBILBIDEA SENDERO LITORAL

Euskaditik igarotzean, E9 "Europako Kostaldeko ibilbidea" mendiko ibilbide luze (GR) gisa seinalizatuta dago. Ibilbide hauekin bat egiten du: GR 121\* "Talaia ibilbidea" Gipuzkoan, eta GR 123\* "Bizkaiko Bira" Bizkaian.

A su paso por Euskadi, el E9 "Sendero Litoral Europeo" se encuentra señalizado como sendero de gran recorrido. Coincide con el GR\* 121 "Sendero Talaia" en Gipuzkoa y con el GR\* 123 "Vuelta a Bizkaia" en el tramo vizcaino.



## GOMENDIOAK

Saia zaitetz etapak norbaitekin egiten, eta esan nora zoazen eta noiz etorriko zaren.

Planifikatu ondo etapak, eta diseinatu zure aukeren arabera.

Eraman oinetako eta arropa egokiak, eguraldiaren iragarpena kontuan hartuta.

Eraman beti behar den beste hornigai (ura, janaria, botikina, mugikorra ondo kargatuta, dirua, dokumentazioa...).

Errespetatu ingurunea eta gainerako ibiltariak.

## RECOMENDACIONES

Procura realizar las etapas en compañía y deja aviso de dónde vas y cuándo vuelves.

Planifica bien las etapas y adáptalas a tus posibilidades.

Lleva calzado y ropa adecuados teniendo en cuenta la predicción del tiempo.

Lleva siempre equipo suficiente (agua, alimentos, botiquín, móvil bien cargado, dinero, documentación...).

Respeto el entorno que visitas y al resto de senderistas.


EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

Etaparen hasieran lehen ahalegina egingo dugu maldan gora, Ondarroako hirigunea atzean uzteko. Ondoren, desnibel handirik gabe jarraitzen du ibilbidea, eukaliptoen eta koniferoen itzalpean, Lea ibaiaren bidezidorrarekin topo egin arte; Lekeitioko hiribildu xarmagarrian itsasoratzen da Lea ibaia. Etapa amaitu baino lehen, Ispaster landa-herri txikian, Otoio gailurra igo beharko dugu, garai batean balea-talaia izandakoa.

El inicio de la etapa requiere un primer esfuerzo cuesta arriba para dejar atrás el casco urbano de Ondarroa. Después, la ruta discurre sin grandes desniveles a la sombra de eucaliptos y coníferas hasta topamos con la Senda del río Lea, que desemboca en la encantadora villa de Lekeitio. Antes del final de etapa, en la pequeña localidad rural de Ispaster, habrá que coronar la cima de Otoio, antigua atalaya ballenera.

21 km 976 m 6h 30' MIDE 1-2-2-4



### MIDE

- 1 Ingurunean arriskuak egon daitezke  
El medio no está exento de riesgos
- 2 Bidexkak edo jarraibidea adierazten duten seinaleak  
Sendas o señalización que indica la continuidad
- 2 Zaldibideko ibaldia  
Marcha por caminos de herradura
- 4 6 eta 10 ordu arteko ibaldi jarraia  
De 6 a 10 horas de marcha efectiva

### SEINALEZTAPENA SEÑALIZACIÓN GR® 123

- Ibilbidearen jarraipena  
Continuidad del sendero
- Norabide aldaketa  
Cambio de dirección
- Norabide okerra  
Dirección equivocada

## Bidezatia / Tramo ONDARROA ► MENDEXA

km 0..... **ONDARROA.** Bere marinel-xarmarekin eta bizitzaz beteriko portuarekin, Bizkaiko arrantza-tradizioa ezagutzera gonbidatzen gaitu herri honek, bertako kaleetako benetako giroaz gozatzeko dugun bitartean. Estilo gotiko berantiarreko Santa Maria eliza bikainaren ondoan, herriko hirigune historikoan sartuko gara. Agirretar Txomin kaleak goiko aldera eramango gaitu. Bertan, harrizko zola landa-bide bihurtzen da, Antiguako Andre Mariaren ermitaren azpitik igarotzen da, eta laster mendebalderantz jotzen du, Asterrika auzorantz.

km 3,8..... **ASTERRIKA.** Bideak Artibai ibaiaren arroaren ikuspegi ederrak eskainiko dizkigu, gain batean Asterrika herrigune txikira iritsi arte. Han, San Lorenzo basiliza gotikoa dago, XV. mendekoa. Intsinis pinuaren eta eukaliptoen baso-sailen artean, Lekeitiotik Ondarroarako "Errege Bide" zaharraren gainetik igaroko gara, eta turrieta auzotik sartuko gara Mendexa udalerrian.

km 0..... **ONDARROA.** Con su encanto marineru y su puerto lleno de vida, esta población invita a descubrir la tradición pesquera de Bizkaia mientras se disfruta del ambiente auténtico de sus calles. Junto a la imponente iglesia de Santa María, de estilo gótico tardío, nos adentramos en el casco histórico de la villa. La calle Agirretar Txomin nos conduce a la zona más elevada donde el empedrado se convierte en un camino rural que pasa bajo la ermita de Nuestra Señora de la Antigua y pronto tomará dirección oeste hacia el barrio de Asterrika.

km 3,8..... **ASTERRIKA.** El camino nos ofrece bonitas panorámicas de la cuenca del Artibai hasta alcanzar en un alto el pequeño núcleo de Asterrika, donde encontramos la ermita gótica de San Lorenzo (s. XV). Entre plantaciones forestales de pino insignis y eucaliptos discurremos sobre el antiguo "Camino Real" de Lekeitio a Ondarroa y entramos en el municipio de Mendexa por el barrio de Iturrieta.

# KOSTALDEKO IBILBIDEA SENDERO LITORAL

EUSKAL KOSTALDEA COSTA VASCA

## ONDARROA ► ISPASTER


Km 21

976 m

6h 30'



EUSKADI BASQUE COUNTRY



MENDEXA Km. 8.8

ASTERRIKA Km. 3.8

ONDARROA Km. 0



# EZ GERATU EZAGUTU GABE! ¡NO TE LO PIERDAS!

Marierrota errota 1555ean eraiki zuten Lea ibaiaren ertzean, lehorte-garaietarako ibai-erroten osagarri gisa. Oraindik kontserbatu da harlangaitzeko dikea, ura bildu eta ur-putzua sortzeko erabiltzen zena, itsasbehera hastean ehotzeko makinak martxan jartzen zituena.



El molino de Marierrota fue construido en 1555 en la orilla del río Lea, con el propósito de complementar a los molinos fluviales durante las épocas de sequía. Aún se conserva el dique de mampostería con el que se generaba la balsa de agua que, al iniciarse la bajamar, ponía en funcionamiento la maquinaria de la molienda.

Lekeitioko Santa Katalina itsasargian nabigazio-teknikaren interpretazio-zentroa dago. Bertan bizi dezakegu, itsasoan galduta zebiltzala, marinelek izango zuten sententzia etxera itzultzen lagunduko zien itsasargiaren distira ikustean. Bisita gidatuak eskaintzen ditu Turismo Bulegoaren bitartez.

El Faro de Santa Katalina de Lekeitio alberga un centro de interpretación de la técnica de la navegación que nos permite experimentar la sensación de los marineros que, perdidos en la mar, ven la luz del faro, que les devuelve a casa. Ofrece visitas guiadas por medio de la Oficina de Turismo.



## Bidezatia / Tramo MENDEXA ► ISPASTER

km 8,8 --- **MENDEXA.** Mendexa udalerrian sartuko gara, eta Zelaia, herrigune nagusia eskuinean utzita, Leagi dorrearen ondotik igaroko gara. Dorre hori Erdi Arokoa da, baina XVIII. mendean eraberritu zuten. Ondoren, baso-pista bat jaisten da eukalipto artean, Lea ibaiaren arroko bidearekin bat egin arte, GR® 38 "Ardoaren eta Arrainaren ibilbidearen" ingurabidea. Ibaiaren eskuinaldetik, "Marierrota" izeneko marea-errotara iritsiko gara, XVI. mendeko obra zibil hidrauliko ikusgarria. Gertu dagoen Isuntzako zubiak markatzen du Lekeitioko sarrera.

km 13 --- **LEKEITIO.** Marinel-herri honek jakin du Erdi Aroko hirigune historikoa eta portu-paisaia erakargarria kontserbatzen. Horiek eta bertako hondartzek udatiar ugari erakartzen dituzte uda partean. Portua zeharkatu ondoren, eraikin dotoreen oinetan, itsasora begira dauden leiho zabalekin, kostaldeko ibilbideari jarraituko diogu, Santa Katalina itsasargiaren bila. Handik, Otoio mendiak eskaintzen digun malda handia igo behar dugu oraindik; mendi hori baleen talaia izan zen garai batean. Gailurrak, artez estalia baitago, ez du eskaintzen espero genezakeen ikuspegiak, baina bai igotzean, bai jaistean, kostaldearen ikuspegi zoragarriak gozatuko dugu Ispasterreko landagunera iritsi aurretik.

km 21 --- **ISPASTER**



Karraspio

km 8,8 --- **MENDEXA.** Entramos en el municipio de Mendexa y dejando Zelaia, su núcleo principal, a la derecha, pasamos junto a la torre Leagi, de origen medieval, aunque reformada en el s. XVIII. Tras rebasarla, una pista forestal desciende entre eucaliptos hasta entroncar con el Sendero del Lea, variante del GR® 38 "Ruta del Vino y el Pescado". Por la margen derecha del río llegamos hasta el molino de mareas de "Marierrota", una espectacular obra civil hidráulica del s. XVI; el cercano puente de Isuntza marca la entrada en Lekeitio.

km 13 --- **LEKEITIO.** Esta villa marinera ha sabido conservar su casco histórico medieval y un atractivo paisaje portuario junto a sus arenas, que constituyen un gran polo de atracción de veraneantes en la época estival. Tras cruzar el puerto, a los pies de elegantes edificios con amplios ventanales abiertos al mar, seguimos la línea de costa en busca del faro de Santa Katalina. Desde aquí aún resta salvar el fuerte desnivel que nos ofrece el monte Otoio, antigua atalaya ballenera. Aunque su cima, cubierta de encinas, no brinda las vistas que cabría esperar, tanto en la ascensión como en el descenso disfrutaremos de espléndidas panorámicas de la costa antes de alcanzar el núcleo rural de Ispaster.

km 21 --- **ISPASTER**



### TELÉFONO INTERESGARRIAK TELÉFONOS DE INTERÉS

Turismo bulegoak Oficinas de Turismo Ondarroa	94 683 19 51 670 358 534
Lekeitio	94 684 40 17

Larrialdiak  
Emergencias



[turismoa.euskadi.eus/eu/](http://turismoa.euskadi.eus/eu/)  
[turismo.euskadi.eus/es/](http://turismo.euskadi.eus/es/)

